Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

12. zenbakia Data 2009-01-21 1373 orria

**3 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK**
GFA-OGASUNA ETA FINANTZAK
**Urtarrilaren 15eko 20/2009 FORU AGINDUA, 330 eredua onartzen duena.**

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

*Urtarrilaren 15eko 20/2009 FORU AGINDUA, «Hileko itzulketen erregistroa. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko autolikidazioa» izena duen 330 eredua onartzen duena.*

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren likidazio aldi bakoitzaren amaieran zergadunaren alde dagoen saldoaren itzulketa eskatzeko aukerari dagokionez zergaren araudian sartutako aldaketa dela-eta, desagertu egin dira bai esportatzaileen eta beste operadore ekonomiko batzuen erregistroa eta bai kuotak itzultzeko berariazko erregimena. Hori dela-eta, beharrezko gertatzen da Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 330 eredua aldatzea abenduaren 29ko 1.624/1992 Errege Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduari buruzkoak, 30. artikuluan aurreikusten duen araubide berrira egokitzeko.

Gauzak horrela, honako hau

XEDATU DUT

*1. artikulua. 330 eredua onartzea.*

Onarturik geratzen da 330 eredua, foru agindu honetan I. Eranskin gisa ageri dena, eta honela izendatuta datorrena: Hileko itzulketen erregistroa - Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko autolikidazioa.

*2. artikulua. 330 eredua aurkeztera behartuak.*

Bat. Abenduaren 29ko 1.624/1992 Errege Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duenak, 30. artikuluan aipatzen duen hileko itzulketen erregistroan izena emanda dauden subjektu pasiboek aurkeztu behar dute 330 eredua. Bide telematikoz baino ezingo da aurkeztu eredu hori.

*Bi.* Autolikidazioa Gipuzkoako Foru Aldundian bakarrik aurkeztu behar duten subjektu pasiboek erabili behar dute 330 eredua, baita autolikidazio hori Foru Aldundi honetan ez ezik beste zerga administrazio batean edo batzuetan tokian tokiko eragiketa kopuruaren arabera aurkeztu behar dutenek ere.

*3. artikulua. 330 eredua aurkezteko epea.*

Bat. Likidatu beharreko hilabetea amaitu ondorengo lehen hogeita bost egun naturalen barruan aurkeztu eta, hala badagokio, ordaindu beharko da 330 eredua.

Salbuespen gisa, uztaileko aitorpenaren aurkezpena eta, hala bada, hari dagokion ordainketa abuztuaren 1etik irailaren 25era bitartean egingo da.

*Bi.* Abenduko likidazio aldiari dagozkion autolikidazioak «urteko laburpena» deritzon aitorpen-likidazioan sartuko dira, 390 ereduan.

*Hiru.* Kuotak helbideratze bankarioz ordaindu edo itzuliko dira, zergapekoak horretarako adierazten duen kontuan.

*4. artikulua. 330 eredua telematikoki aurkezteko prozedura.*

Bat. 330 eredua bide telematikoz aurkezteko, zirkunstantzia hauetako bat gertatu behar da, ondorengo hirugarren apartatuan jasotakoa eragotzi gabe:

a) Sinadura elektroniko balioztatua izatea, sinadura elektronikoari buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legeak jasotakoa.

b) Pasahitz operatiboa eskuratzea Ogasun eta Finantza Departamentuarekiko harremanetan zerbitzu telematikoak erabiltzeko, irailaren 12ko 40/2006 Foru Dekretuak, Zerga Administrazioarekin egitekoak diren jarduketetan identitatea eta ordezkaritza nola frogatu arautzen duenak, 3. artikuluan xedatutakoaren arabera.

*Bi.* Modalitate hauetan aurkez daiteke telematikoki 330 eredua:

— Formulario bidez: Ogasun eta Finantza Departamentuaren web gunean -www.gipuzkoa.net/ogasuna– bete eta telematikoki aurkeztu behar da, «Ogasunataria» zerbitzu telematikoen atariaren bitartez.

— Fitxategi bidez: Aipatu web gunetik igorri behar dira fitxategiak. Fitxategiei dagozkien erregistroen eta diseinu logikoen konfigurazioa eta deskripzioa foru agindu honetako II. Eranskinean jasota daude.

*Hiru.* Azaroaren 18ko 1.002/2008 Foru Aginduak, zergapeko jakin batzuk zerga aitorpenak eta autolikidazioak sinadura elektroniko balioztatua erabiliz telematikoki igortzera behartu eta horren prozedura finkatzen duenak, 1. artikuluan aipatzen dituen zirkunstantziak gertatzen direnean, foru agindu horretan ezarritakoari jarraikiz aurkeztu beharko da aitorpen telematikoa.

Era berean, aurkezpen telematikoaren gainerako kasuetan 1.002/2008 Foru Agindua aplikaziozkoa izango da baldintza orokorrei eta aurkezteko prozedurari dagokienez, non eta ez dagoen kontraesanean foru agindu honetan jasotakoarekin.

*Lau.* Telematikoki epe barruan aurkeztutako autolikidazioak bide hori erabilita bakarrik aldatu, zuzendu edo deuseztatu daitezke.

XEDAPEN IRAGANKORRA

1.002/2008 Foru Agindua indarrean jarri arte, telematikoki eta sinadura elektroniko balioztatua erabiliz aurkeztera behartutako subjektuak.

Azaroaren 18ko 1.002/2008 Foru Aginduak, zergapeko jakin batzuk zerga aitorpenak eta autolikidazioak sinadura elektroniko balioztatua erabiliz telematikoki igortzera behartu eta horren prozedura finkatzen duenak, ondorioak izan arte, aplikaziozkoa izango da otsailaren 25eko 165/2004 Foru Agindua, aitorpen-likidazio jakin batzuk bide telematikoz aurkezteko prozedura arautzen duena, foru agindu honetan araututakoarekin bat datorren guztian.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrik gabe geratzen dira foru agindu honetan xedatutakoarekin bat ez datozen maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak eta, bereziki, otsailaren 1eko 49/1995 Foru Agindua, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitorpen-likidazioa egiteko 300, 308, 309, 310, 320, 330 eta 370 eredu berriak onartzen dituena, 330 ereduari dagokion guztian.

AMAIERAKO XEDAPENA

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2009ko ekainaren 15a.—Pello Gonzalez Argomaniz, Ogasuna eta Finantza Departamentuko Foru Diputatua.

(277) (389)



330 EREDUA:

*Oharrak:*

Erregistro honetan, aitorpeneko datuen informazioa jasota dago.

Zenbatekoen eremu guztietan, kopuruak euro-zentimotan agertu behar dira. Beraz, zenbatekoek inoiz ez dute zenbaki hamartarrik izango.

Zeinua eraman dezakeen zenbateko bakoitzaren aurrean, zeinua adierazteko eremua egoten da. Eremu horrek minus balioa (–) hartu beharko du negatiboa denean eta zero balioa (0), aldiz, zero edo positiboa denean.

Gipuzkoari esleitzekoa den portzentajearen eremua zenbaki osoen 3 posizioz eta zenbaki hamartarren 4 posizioz osatuta dago.

II . ERANSKINA

| *Deskripzioa* | *Dat. m.* | *Luz.* | *Leh. pos.* | *Azk. pos.* |
|---|---|---|---|---|
| Erregistroaren gakoa | | | | |
| Aurkezlearen IFZ | AN | 9 | 1 | 9 |
| Aitortzailearen IFZ | AN | 9 | 10 | 18 |
| Ekitaldia | N | 4 | 19 | 22 |
| 330 eredua (M2009) | AN | 3 | 23 | 25 |
| Zergaldia | AN | 2 | 26 | 27 |
| Erregistro kodea | N | 2 | 28 | 29 |

| *Deskripzioa* | *Dat. m.* | *Luz.* | *Leh. pos.* | *Azk. pos.* |
|---|---|---|---|---|
| Bezero kontuaren kodea | N | 20 | 30 | 49 |
| 01-Jarduerarik gabea | AN | 1 | 50 | 50 |
| 02- Ondoko eremuaren zeinua (0 o-) | AN | 1 | 51 | 51 |
| 02- %16ko oinarria | N | 14 | 52 | 65 |
| 03- Ondoko eremuaren zeinua (0 o-) | AN | 1 | 66 | 66 |
| 03- %16ko kuota | N | 13 | 67 | 79 |
| 04- Ondoko eremuaren zeinua (0 o-) | AN | 1 | 80 | 80 |
| 04- %7ko oinarria | N | 14 | 81 | 94 |
| 05- Ondoko eremuaren zeinua (0 o-) | AN | 1 | 95 | 95 |
| 05- %7ko kuota | N | 13 | 96 | 108 |
| 06- Ondoko eremuaren zeinua (0 o-) | AN | 1 | 109 | 109 |
| 06- %4ko oinarria | N | 14 | 110 | 123 |
| 07- Ondoko eremuaren zeinua (0 o-) | AN | 1 | 124 | 124 |
| 07- %4ko kuota | N | 13 | 125 | 137 |
| 08- Ondoko eremuaren zeinua (0 o-) | AN | 1 | 138 | 138 |
| 08- Errekarguko eragiketen % 4ko oinarria | N | 14 | 139 | 152 |
| 09- Ondoko eremuaren zeinua (0 o-) | AN | 1 | 153 | 153 |
| 09- Errekarguko eragiketen % 4ko kuota | N | 13 | 154 | 166 |
| 10- Ondoko eremuaren zeinua (0 o-) | AN | 1 | 167 | 167 |
| 10- Errekarguko eragiketen % 1eko oinarria | N | 14 | 168 | 181 |
| 11- Ondoko eremuaren zeinua (0 o-) | AN | 1 | 182 | 182 |
| 11.- Errekarguko eragiketen % 1eko kuota | N | 13 | 183 | 195 |
| 12- Ondoko eremuaren zeinua (0 o-) | AN | 1 | 196 | 196 |
| 12- Errekarguko eragiketen % 0,5eko oinarria | N | 14 | 197 | 210 |
| 13- Ondoko eremuaren zeinua (0 o-) | AN | 1 | 211 | 211 |
| 13- Errekarguko eragiketen % 0,5eko kuota | N | 13 | 212 | 224 |
| 14- Ondoko eremuaren zeinua (0 o-) | AN | 1 | 225 | 225 |
| 14- Batasun barruko eskurapenen oinarria | N | 14 | 226 | 239 |
| 15- Ondoko eremuaren zeinua (0 o-) | AN | 1 | 240 | 240 |

| *Deskripzioa* | *Dat. m.* | *Luz.* | *Leh. pos.* | *Azk. pos.* |
|---|---|---|---|---|
| 15- Batasun barruko eskurapenen kuota | N | 13 | 241 | 253 |
| 16- Ondoko eremuaren zeinua (0 o-) | AN | 1 | 254 | 254 |
| 16- Sortutako kuota, guztira | N | 14 | 255 | 268 |
| 17- Ondoko eremuaren zeinua (0 o-) | AN | 1 | 269 | 269 |
| 17- Barruko eragiketen BEZ kenkaridunen oinarria | N | 14 | 270 | 283 |
| 18- Ondoko eremuaren zeinua (0 o-) | AN | 1 | 284 | 284 |
| 18- Barruko eragiketen BEZ kenkaridunaren kuota | N | 13 | 285 | 297 |
| 19- Ondoko eremuaren zeinua (0 o-) | AN | 1 | 298 | 298 |
| 19- Inportazioen BEZ kenkaridunaren oinarria | N | 14 | 299 | 312 |
| 20- Ondoko eremuaren zeinua (0 o-) | AN | 1 | 313 | 313 |
| 20- Inportazioen BEZ kenkaridunaren kuota | N | 13 | 314 | 326 |
| 21- Ondoko eremuaren zeinua (0 o-) | AN | 1 | 327 | 327 |
| 21- Batasun barruko eskurapenen BEZ kenkaridunaren oinarria | N | 14 | 328 | 341 |
| 22- Ondoko eremuaren zeinua (0 o-) | AN | 1 | 342 | 342 |
| 22- Batasun barruko eskurapenen BEZ kenkaridunaren kuota | N | 13 | 343 | 355 |
| 23- Ondoko eremuaren zeinua (0 o-) | AN | 1 | 356 | 356 |
| 23- N.A.A. erregimeneko konpentsazioen kuota | N | 13 | 357 | 369 |
| 24- Ondoko eremuaren zeinua (0 o-) | AN | 1 | 370 | 370 |
| 24- Inbertsioen erregularizazioaren BEZ kenkaridunaren kuota | N | 13 | 371 | 383 |
| 25- Ondoko eremuaren zeinua (0 o-) | AN | 1 | 384 | 384 |
| 25- Kentzeko kuota, guztira | N | 13 | 385 | 397 |
| 26- Ondoko eremuaren zeinua (0 o-) | AN | 1 | 398 | 398 |
| 26- Diferentzia | N | 13 | 399 | 411 |
| 27- Gipuzkoari esleitzeko portzentajea | N | 7 | 412 | 418 |
| 27- Ondoko eremuaren zeinua (0 o-) | AN | 1 | 419 | 419 |
| 28- Gipuzkoari esleitzeko kuota | N | 11 | 420 | 430 |
| 29- Gipuzkoan aurreko ekitaldietatik konpentsatzeko kuotak | N | 11 | 431 | 441 |
| 30- Ondoko eremuaren zeinua (0 o-) | AN | 1 | 442 | 442 |
| 30- Batasun barruko salmentak | N | 14 | 443 | 456 |

| *Deskripzioa* | *Dat. m.* | *Luz.* | *Leh. pos.* | *Azk. pos.* |
|---|---|---|---|---|
| 31- Ondoko eremuaren zeinua (0 o-) | AN | 1 | 457 | 457 |
| 31- Esportazioak eta pareko eragiketak | N | 14 | 458 | 471 |
| 32- Zuriunea | AN | 1 | 472 | 472 |
| 32- Zeroak | N | 14 | 473 | 486 |
| 33- Ondoko eremuaren zeinua (0 o-) | AN | 1 | 487 | 487 |
| 33- Lotu gabeko erag. edo subj. pas. inb. erag. - Itzulketa eskub. | N | 14 | 488 | 501 |
| 34- Zeroak | N | 11 | 502 | 512 |
| 35- Ondoko eremuaren zeinua (0 o-) | AN | 1 | 513 | 513 |
| 35- Emaitza | N | 11 | 514 | 524 |
| 36- Ordaintzekoa | N | 11 | 525 | 535 |
| 37- Konpentsatzekoa | N | 11 | 536 | 546 |
| 38- Itzultzekoa | N | 11 | 547 | 557 |

ANEXO II

| *Descripción* | *T.Dato* | *Long* | *Pos.Ini.* | *Pos.Fin* |
|---|---|---|---|---|
| Clave del Registro | | | | |
| NIF presentador | AN | 9 | 1 | 9 |
| NIF declarante | AN | 9 | 10 | 18 |
| Ejercicio | N | 4 | 19 | 22 |
| Modelo 330 | AN | 3 | 23 | 25 |
| Periodo | AN | 2 | 26 | 27 |
| Código de registro | N | 2 | 28 | 29 |
| Código cuenta cliente | N | 20 | 30 | 49 |
| 01-Sin actividad | AN | 1 | 50 | 50 |

| *Descripción* | *T.Dato* | *Long* | *Pos.Ini.* | *Pos.Fin* |
|---|---|---|---|---|
| 02- Signo campo siguiente (0 o -) | AN | 1 | 51 | 51 |
| 02-Base al 16 | N | 14 | 52 | 65 |
| 03- Signo campo siguiente (0 o -) | AN | 1 | 66 | 66 |
| 03-Cuota al 16 | N | 13 | 67 | 79 |
| 04- Signo campo siguiente (0 o -) | AN | 1 | 80 | 80 |
| 04-Base al 7 | N | 14 | 81 | 94 |
| 05- Signo campo siguiente (0 o -) | AN | 1 | 95 | 95 |
| 05-Cuota al 7 | N | 13 | 96 | 108 |
| 06- Signo campo siguiente (0 o -) | AN | 1 | 109 | 109 |
| 06-Base al 4 | N | 14 | 110 | 123 |
| 07- Signo campo siguiente (0 o -) | AN | 1 | 124 | 124 |
| 07-Cuota al 4 | N | 13 | 125 | 137 |
| 08- Signo campo siguiente (0 o -) | AN | 1 | 138 | 138 |
| 08-Base recargo al 4 | N | 14 | 139 | 152 |
| 09- Signo campo siguiente (0 o -) | AN | 1 | 153 | 153 |
| 09-Cuota recargo al 4 | N | 13 | 154 | 166 |
| 10- Signo campo siguiente (0 o -) | AN | 1 | 167 | 167 |
| 10-Base recargo al 1 | N | 14 | 168 | 181 |
| 11- Signo campo siguiente (0 o -) | AN | 1 | 182 | 182 |
| 11-Cuota recargo al 1 | N | 13 | 183 | 195 |
| 12- Signo campo siguiente (0 o -) | AN | 1 | 196 | 196 |
| 12-Base recargo al 0,5 | N | 14 | 197 | 210 |
| 13- Signo campo siguiente (0 o -) | AN | 1 | 211 | 211 |
| 13-Cuota recargo al 0,5 | N | 13 | 212 | 224 |
| 14- Signo campo siguiente (0 o -) | AN | 1 | 225 | 225 |

| *Descripción* | *T.Dato* | *Long* | *Pos.Ini.* | *Pos.Fin* |
|---|---|---|---|---|
| 14-Base adquisiciones intracomunitarias | N | 14 | 226 | 239 |
| 15- Signo campo siguiente (0 o -) | AN | 1 | 240 | 240 |
| 15-Cuota adquisiciones intracomunitarias | N | 13 | 241 | 253 |
| 16- Signo campo siguiente (0 o -) | AN | 1 | 254 | 254 |
| 16-Total cuota devengada | N | 14 | 255 | 268 |
| 17- Signo campo siguiente (0 o -) | AN | 1 | 269 | 269 |
| 17-Base Iva deducible operaciones interiores | N | 14 | 270 | 283 |
| 18- Signo campo siguiente (0 o -) | AN | 1 | 284 | 284 |
| 18-Cuota Iva deducible operaciones interiores | N | 13 | 285 | 297 |
| 19- Signo campo siguiente (0 o -) | AN | 1 | 298 | 298 |
| 19-Base Iva deducible importaciones | N | 14 | 299 | 312 |
| 20- Signo campo siguiente (0 o -) | AN | 1 | 313 | 313 |
| 20-Cuota Iva deducible importaciones | N | 13 | 314 | 326 |
| 21- Signo campo siguiente (0 o -) | AN | 1 | 327 | 327 |
| 21-Base Iva deducible adquisiciones intracomunitarias | N | 14 | 328 | 341 |
| 22- Signo campo siguiente (0 o -) | AN | 1 | 342 | 342 |
| 22-Cuota Iva deducible adquisiciones intracomunitarias | N | 13 | 343 | 355 |
| 23- Signo campo siguiente (0 o -) | AN | 1 | 356 | 356 |
| 23-Cuota compensaciones Reg A.G. y P. | N | 13 | 357 | 369 |
| 24- Signo campo siguiente (0 o -) | AN | 1 | 370 | 370 |
| 24-Cuota Iva deducible Regularización Inversiones | N | 13 | 371 | 383 |
| 25- Signo campo siguiente (0 o -) | AN | 1 | 384 | 384 |
| 25-Cuota total a deducir | N | 13 | 385 | 397 |
| 26- Signo campo siguiente (0 o -) | AN | 1 | 398 | 398 |
| 26-Diferencia | N | 13 | 399 | 411 |

| *Descripción* | *T.Dato* | *Long* | *Pos.Ini.* | *Pos.Fin* |
|---|---|---|---|---|
| 27-Porcentaje Gipuzkoa | N | 7 | 412 | 418 |
| 27- Signo campo siguiente (0 o -) | AN | 1 | 419 | 419 |
| 28-Atribuible T. H. Gipuzkoa | N | 11 | 420 | 430 |
| 29-Cuotas a compensar de periodos anteriores en T.H. Gipuzkoa | N | 11 | 431 | 441 |
| 30- Signo campo siguiente (0 o -) | AN | 1 | 442 | 442 |
| 30-Entregas intracomunitarias | N | 14 | 443 | 456 |
| 31- Signo campo siguiente (0 o -) | AN | 1 | 457 | 457 |
| 31-Exportaciones y operaciones asimiladas | N | 14 | 458 | 471 |
| 32- Blanco | AN | 1 | 472 | 472 |
| 32- A Ceros | N | 14 | 473 | 486 |
| 33- Signo campo siguiente (0 o -) | AN | 1 | 487 | 487 |
| 33-Op. No sujetas o con inver s.p. Con derecho a devolución | N | 14 | 488 | 501 |
| 34-A Ceros | N | 11 | 502 | 512 |
| 35- Signo campo siguiente (0 o -) | AN | 1 | 513 | 513 |
| 35-Resultado | N | 11 | 514 | 524 |
| 36-A ingresar | N | 11 | 525 | 535 |
| 37-A compensar | N | 11 | 536 | 546 |
| 38-A devolver | N | 11 | 547 | 557 |